

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko maiatzaren 29a. IX. urtea. 2.357. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Vicente Ameztoyren artelanak bildu dituzte Villabonan

Margolariaren heriotzaren 10. urteurrenaren harira, 50 bat lan daude ikusgai 'Etxe Ondotik' izenpean Gurea aretoko erakusketan **o2**

Txotxongiloen munduko topagune izan daiteke Tolosa

Topic zentroaren eskutik eta Donostiarekin batera Unima biltzarra eta jaialdiaren egoitza izateko hautagaien artean dago **o3**



LITERADIOS

→ **Festa giroa asteburuan.** Txaraman eta Izaskunen jaiak izan dituzte azken egunotan. Txaraman bi egunez ospatu dituzte eta egun nagusia larunbatekoa izan zen. Ibarrako Izaskun auzoan hiru egunez luzatu dira eta atzo amaitu ziren, besteak beste, irudiko Alurr taldeko dantzari gaztetxoek emanaldiarekin. **o5**



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA

ingeleraz
ere bai

ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

AURREMATRIKULAK Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak



Galder Azkue alkatea, Garazi Lopez de Etxezarreta Diputazioko Kultura zuzendaria eta Nora Urbizu zinegotzia Ameztoyren emazte eta alabarekin. A. IMAZ

Vicente Ameztoyren 50 artelan baino gehiagorekin erakusketa zabaldu dute

Gurea zinemaren aretoan ireki dute margolariaren erakusketa, ekainaren 23ra bitarte

Asier Imaz Amasa-Villabona

Vicente Ameztoyren omenezko erakusketa zabaldu dute Gurea zinemaren aretoan. Margolariaren 50 artelan baino gehiagok osatzen dute *Etxe Ondotik* erakusketa. Inaugurazio ekitaldia iragan ostiralean egin zuten, eta bertan, Vicente Ameztoyren senitartekok, lagunak eta erakundeetako ordezkariak elkartu ziren. Bernardo Atxaga idazle asteasuarra aurkeztu zuen ekitaldia.

Margolariaren heriotzaren 10. urteurrenaren harira antolatuta dute erakusketa, eta inaugurazioan bildutako guztiek Ameztoyren agertze eskar oneko hitzak izan zituzten.

Nora Urbizu Amasa-Villabonako Euskara eta Kultura zinegotzia da, eta erakusketa aurrera aterata zedin, Galder Azkue alkate-

arekin batera, hasieratik ibili da lanean; hain zuzen ere, Ameztoy familiarengana eurak gerturatu ziren ideia azaltzeko asmoz. Urbizuren esanetan, artista eta pertsona bera omendu nahi izan dituzte erakusketarekin: «Amasa-Villabonako herriak Vicente Ameztoyrekin zor bat bazuela sentitzen genuen. Gure artean bizi izan zen 30 urte horietan, miresmena eta maitasuna sortu zituen, bai pertsona bezala eta baita artista bezala ere. Vicente Ameztoy herritar aktiboa izan zen, parte hartzailea eta, batez ere, altruista; beti zegoen herritarren ondoan eta herriaren alde egiteko prest. Berak horrela aitortuta, gainera, bere obraren zati garrantzitsuenak Villabonan sortu izan zen, etxe ondoko etxean, hain zuzen ere; hura zuen inspirazio gune».

Erakusketaz gain, aurrera begira, udalak artistarekiko konpromiso «rimoa» hartzen zuela azaldu zuen Nora Urbizuk iragan ostiralean: «Ekimen gehiago antolatuko ditugu, izan ere, helburu nagusia Vicente Ameztoyren memoria bizirik mantentzea da;

ezinbestekoa da bere bizitza eta obra gure herriko belaunaldi gazteeneri erakustea eta zabaltzea, eta udalak konpromiso irmo hori bere egiten du».

Vicente Ameztoyren alabak, Virginia Ameztoyek, aitaren inguruko erakusketa antolatuko idea nondik sortu zen azaldu zuen: «Galder Azkue alkatea eta Nora Urbizu zinegotzia gure etxera etorri ziren bisitan; aitari omenaldia egiteko proposamena bota zuten, eta planteatu zuten modua asko gustatu zitzaigunez, ilusio handiarekin hartu genuen. Erakusketan ze obra jarri pentsatzen hasi ginen, eta egokiena bere teknika guztiak azaltzea zela erabaki genuen; gero elkarrizketa bat, berak eginiko hainbat azal eta albumak jarri ditugu. Gustukoa izatea espero dugu».

Bernardo Atxagaren hitzak

Vicente Ameztoyren erakusketan kultura munduko aurpegi ezagun ugari elkartu ziren. Horien artean, ekitaldia aurkezteko ardura Bernardo Atxagari egokitu zitzaion. Asteasuko idazleak, handien pare jarri zuen Vicen-

te Ameztoy, eta margolariarentzat errekonozimendu gehiago eskatu zuen: «Zumeta eta antzeko batzuekin batera, XX. mendean Euskal Herriko onenetakoa izan da. Horrekin batera, esan beharra daukat harritu egiten naizela, oraindik Euskal Herrian, Bilboko arte ederretan edo... nola ez zaion erakusketa zabal bat egiten». Atxagarentzat Ameztoy «oso bakana» izan zen: «Zenbat gara Euskal Herrian? Beraz ez du berdinek, ezta antzekorik ere. Bere harremana erlijioarekin adibidez, ezin da inorenarekin alderatu. Gero, marka bat utzi duela aipatu behar da; irudi batzuk beti lotuko ditugu Ameztoyrekin, eta XX. mendeko Euskal Herriko bigarren zati horrekin».

@ tolosaldea.hitza.info

villabona-aiztondo.hitza.info-

ikus daiteke inaugurazioaren bideoa QR kode hau eskaneatuta.



Eskualdeko hondakinen kudeaketaren datuak azalduko dituzte, gaur

Tolosa Zero Zabor mugimenduak hitzaldi informatiboa antolatu du kultur etxean, 19:30ean

A. Imaz Tolosa

Gema Ezeiza eta Iñigo Muñoz Tolosaldeko mankomunitateko eta Tolosako ingurumen teknikariak informazio hitzaldia emango dute gaur, Tolosako kultur etxean, 19:30ean. Tolosa Zero Zabor mugimenduak antolatuta, eskualdeko hondakinen kudeaketaren inguruan ariko dira. «Hondakinak zenbat bereizten ditugun, zenbat nahasian botatzen den eta beste hainbat datu emango dituzte», antolatzaleen esanetan. Hitzaldia amaitzeko, bi teknikariak azalduko dituzte Gipuzkoako beste eskualde eta herriekin konparatuko dira: «Lau edukiontzit ditugunon datuak, bost edukiontzit ezarria dituztenenak eta atez atekoa dutenen artean, alderaketa egingo da, datuetan oinarrituta».

XIV Orduak probako Anjel Alkainen saio berezia, ostiralean

Humorezko programaren errepikapena larunbatean botako dute ETB1n

A. Imaz

Anjel Alkain eta bere lantaldea ETB1erako humorezko saio berezia grabatzen aritu ziren herenegun, XIV Orduak proban. Alkainekin batera, besteak beste, Aitor Elduain eta Pablo Dendaluzetolosaldeko, eta Joxe Mari Barriola ibartarra aritu ziren lanean. XIV Orduak-eko ibilbide guztian zehar grabatutako *sketch* horiek ikusteko aukera ekainaren leian, ostiralean, egongo da, 21:00etan ETB1n.

Programa ostiralean ikusteko aukerarik ez duenak egun bat itxaron beharko du, izan ere, saioaren errepikapena larunbatean botako dute ETB1n, 15:00etatik aurrera.

→ Laburrak

Koadrila eguneko bilera egingo dute, 19:00etan

IBARRA > Jaietako koadrilen eguneko batzarra gaur, hilak 29, egingo dute kultur etxean. Bileran 19:00etan hasiko da, eta «gaiaren garrantzia dela eta», Ibarrako koadrila guztiak bertara agertzeko eskatu diete *Zergatik* ez koadrila antolatzailetik.

Atez ateko zabor bilketa sistema, ohiko bilkuran

IBARRA > Udalbatzaren ohiko bilkura egingo dute, gaur 19:00etan, Ibarrako udaletxean. Gaiaren artean, atez ateko hondakin bilketa sistemaren gaia agertzen da. Udalak aurrez jakinarazi duenez, sistema hau martxan jartzeko prozesua onartuko du gaurko bilkuran. Beste gaien artean, besteak beste, Lehiberri zentroari zuzendutako diru laguntzei buruzko mozioa dago.

Azken ostiraleko elkarretaratzeko datuak

POLITIKA > Tolosaldeko hainbat herritan elkarretaratzeko egin ziren iragan ostiralean, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. Herritarik herritarren erantzuna zenbatu dute: Adunan 14; Alegian 18; Amezketan 10; Anoetan 39; Asteasun 8; Berrobin 10; Berastegin 37; Gaztelun 19; Ibarran 60; Ikaztegieta 16; Leaburu-Txaraman 18; Lizartzan 37; Tolosan 85; Amasa-Villabonan 62 eta Zizurkilen 68.

65 urtetik gorakoentzat musika tailerra aztertzen

ANOETA > Udaletik azaldu duteenez, Anoetan musika tailer bat jarri nahi dute martxan, 65 urtetik gorakoentzat. Gaia aztertzeke, hitzaldi informatiboa bat antolatu dute hilaren 31n, etzi, 19:45ean. Batzarra Anoetako Jubilatuen egoitzan izango da. Udalak bere aldetik, adin horretako herritar guztiak gonbidatu ditu hitzaldi informatibora, musika taileraren inguruko hausnarketara.

Txotxongiloaren munduko hiriburu izateko bidean

Tolosa, Topic zentroaren eskutik, eta Donostia, Unimaren 2016ko biltzarra eta jaialdia hartzeko lehian

Imanol Garcia Landa

Tolosak eta Donostiak elkarrekin defendatuko dute 2016ko Unimaren biltzarra eta jaialdiaren egoitza izateko hautagaitza. Lau urtez behin egiten da txotxongiloaren arloko mundu mailako topagunea, eta aurtengoa Txinako Chengdu hirian egingo da. Hainbat erakunde elkarrekin defendatuko dute hautagaitza: Tolosako Udala (bere izenean Ibai Iriarte alkatea joan da), Topic

zentroa (bere izenean Idoia Otegi zuzendarikidea joan da), Donostia 2016 egitasmoa, Eusko Jaurlaritza eta Etxepare Institutua. Joan aurretik hautagaitzaren aurkezpena egin zuten Tolosako Topic zentroan eta izendapena jasotzeko aukera handiak dituztela esan zuten. Guztiek ere horrelako biltzar eta jaialdi bat Tolosan eta Donostian egitearen garrantzia nabarmendu zuten. Izan ere, 2016ko Unimaren biltzarra eta jaialdia egiteko egoitzaren izendapena jasoz gero, bost kontinentetatik etorritako 50tik gora talde jasotzea espero dute.

Txinan egingo duten hautagaitzaren aurkezpena berezia izango dela esan zuten, ezustekoak prestatu baitituzte. Bestalde, orain gutxi Topic museoa Silleto saria jaso izana goraipatu zuten eta horrek izendapena jasotzeko aukerak zabalduko dizkiela esan zuten. Tolosa-Donostiarekin batera



Tolosa-Donostia hautagaitza defendatuko duten erakundeetako ordezkariak, Topic zentroan. I.G.L.

izendapena lortzeko lehian Errusiako Ekaterimburgo hiria aurkeztuko da.

Tolosa-Donostiaren hautagaitzak hainbat proiektu aurkeztuko ditu, tartean Donostia 2016 egitasmoaren parte direnak. Beste-

ak beste, *Altzoko Handia* txotxongiloen musika-ipuina eta Surfriender Foundation Europekin batera hondartzetan jasotako hondakinekin txotxongiloak egiteko proiektua. Azken proiektu horretan, sortutako txotxongiloekin

emanaldi bat prestatu nahi dute, talde euskaldun baten eta talde poloniar baten artean, eta gero Donostian eta Wrocławen eman nahi dituzte, hau da, 2016an Europako kultur hiriburu izango diren bi hirietan.

Lehiberrirako falta den dirua eskatu du udalbatzak

Tolosako azken osoko bilkuran laikotasunari eta Errepublikari buruzko mozioak ere onartu ziren

I. Garcia Landa

Tolosako azken osoko bilkuran hainbat mozio aztertu ziren. Horietan lehenengoa Lehiberri finantzatzeko diru laguntzari buruzkoa izan zen. Madrilgo Gobernua Lehiberri martxan jartzeko adostutako diruaren bigarren zatia eskatu zuten mozioan, hau da, milioi bat euro. Zinegotzi guztiek eman zioten aldeko bozka mozioari. Diru laguntza hori ez jasotzeko Tolosaldea Garatzen ia zordunen lehiaketa batera eramanez, azaldu zuten Ibai Iriarte alkateak. Hori ez gertatzeko, Diputazioak 400.000 euro eman dituela nabarmendu zuten Iriartek, eta laguntza hori eskertu zuten. Bere garaian bi milioiko diru laguntza adostu zuten Madrilgo eta Gasteizko gobernuen artean, eta horietatik bakarra jaso dute.

Laikotasuna izan zen osoko bilkuran jorratu zuten beste gai bat. Bildu udal taldeak aurkeztu zuten

udalak adierazpen instituzional gisa onartzeko testua. Besteak beste, udalak administrazioaren eremu guztietan «laikotasun printzipioa errespetatzeko konpromisoa» hartzen duela zehazten zuten testuan.

Gaiak eztabaida piztu zuten. EAJk adierazpena atzera botatzea eskatu zuten. Alderdi jeltzalearen iritziz, udal adierazpena «inposizioa» izan da eta «ez da inolako eztabaidarik izan». Testuak ez duela biderik uzten interpretazio-erako esan zuten: «Batetik, [udalak] ez du parte hartuko ekitaldi erlijiosoetan, eta bi, udal zinegotziak bere ordezkaritza instituzionalaz baliatuko dira soilik udalak horrela erabakitzen duenean». PSE-EEk, bere aldetik, bat egin zuten adierazpenen oinarriekin, baina mozioaren 3. eta 4. puntuak, udalaren parte hartzearekin zerkusia dutenak, adierazpenetik kanpo uztea eskatu zuten, eta udalak zein ekitalditan parte hartuko duen eta zeinetan ez zehazteko eztabaida irekitzea proposatu zuten.

Bilduk zein Aralarrek adierazpenen printzipioez hitz egiten dela esan zuten. Udalak zein ekitalditan parte hartuko duen datuak gogokien lekuetan eztabaidatuko dela esan zuten Iriartek, eta, esate-

rako, San Joan jaietako ekitaldien inguruan festa batzordean hitz egiten ari direla esan zuten.

Azkenean, adierazpena onartu zen Bildu eta Aralarren aldeko bozkekin. EAJk kontrakoa bozkatu zuten eta PSE-EE abstenitu egin zen. Erregu eta galderen tartean gaia ere berriro izan zen hizpide, eta E. Durne Mendia Kultura eta Festen zinegotziak, Olatz Peon EAJko zinegotziari erantzunez, laikotasunari buruzko adierazpena dela-eta udala ez dela San Joan jaietako meza ospakizunetan izango azaldu zuten.

Errepublikaren gaia ere izan zen hizpide, Foro Errepublikara

urrak aurkeztu zituen bi mozio eztabaidatu baitziren. Lehenengoa, *Prozesu eratzaile baten alde III. Errepublika aldera* izenekoa, EAJren eta Aralarren aldeko bozkekin onartu zen. Bildu abstenitu egin zen, Espainiako Estatuak izan dezakeen izaera politikari begiratu gabe, Euskal Herriko autodeterminazioa duela helburu esanez. PSE-EEk kontra bozkatu zuten, mozioarekin Errepublikaren aldeko aldarria baino, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen zela argudiatuz.

Bigarren mozioa Errepublikaren oroitza berreskuratzeko eta 1936ko estatu kolpearen eta diktaduraren biktimei ohore emateko aurkeztu zuten. PSE-EEren aldetik beste mozio bat aurkeztu zen, zenbait aldaketa eginez. Alderdi horretako Jose Ignacio Asensio zinegotziak 1936 urtean Errepublikaren alde aitz-

tu zirenak gogoan hartzea eskatu zuten, eta ez bakarrik urte horretan zegoen udalbatzako kideak. Bilduko eta Aralarreko ordezkariak parte hartu zuten eztabaidarako eta bat egitea erabaki zuten PSE-EEren mozioarekin. EAJk ere aurretik aldeko iritzia agertu zuten, eta beraz, zinegotzi guztien aldeko bozkekin onartu zuten.

Foro Errepublikarrak eskertu zuten «alderdi guztiek egindako esfortzua» den arteen mozio bat onartzeko eta 1936ko gerran zein diktaduran hildakoak «denenak» direla esan zuten.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

2012ko maiatzaren 24an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2012-2013 ikasturteko Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udalteko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteaz aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioak edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko. Tolosan, 2012ko maiatzaren 25ean ALKATEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Asteburua iruditzen

Irura



KANTUAN ARITU DIRA IRURARRAK

Irurako Kultur Astearen barruan, kantujira egin zuten larunbat aratsaldean. Adin guztietako 25 herritar inguru agertu ziren udalako deialdiari erantzunetz plaza, eta giro ederrak lagundurik, han bertan kantatu zituzten lehen abestiak. Euskal kantutegiako abesti tradizional ugari abestu zituzten, musika tresnen doinuek lagundurik, akordeoia edota biolina, basu. Plazan ekin zioten saioari, baina, gero herria barrena aritu ziren giroa alaitzen. «»»

Bedaio



KULTURAZ BETERIKO ASTEBURUA

Kultur asteburua izan dute Bedaian, herriak ekitaldiarekin. Larunbatean, esaterako, oga egiten ikasten aritu ziren; goizean lanburuko oga, arratsaldean laburu, eta «emaitza bikainak» lortu zituztela adierazi dute bedaiotarrak. Hala, saloa errepikatzen geratu ziren, Herenegun, bestalde, Karrikatik Eskolabera doan bide zahar-berritu inaguratu zuten. Etxinaren Trian Mendia eta BITT martxa egingo dute, eta ekimen horren azken prestaketetan ari dira bedaiotarrak. «»»

Tolosa



NAFARROAKO KONKISTAREN URTEURRENA GOGOAN

Nafarroako konkistaren 500. Urteurrena izan zuten gogoa larunbatean Tolosan. Goizean, gaitemen eta musika bandaren dantak kaleak alaitu ostean, Baztan eta Amalur herrietako ordezkariak harrera egin zieten udalletean. Bertan izan ziren Nafarroako bi herrietako udalordezkariek, Tolosako udal ordezkariak eta Gipuzkoako

ahaldun nagusia, besteak beste. Ondoren, buruhandiak, eraldoloiak, musika banda, dantzariak eta udal ordezkariak Nafarroa etorbidiko haur parkera joan ziren kalejiran. Bertan, haur parkerari Amalur izena jarri zioten, monumentua inaguratu. Duela 500 urte Nafarroak aukera handi bat galdu zuela, independentziarena, na-

barrendu zuten. Era berean, iragana dela nortasunaren kurra adierazi zuten, eta Euskal Herri libre bat eraki behar dela, etorkizun libre bat gure seme-alabentzat. Tolosako Udalak baztandarrak eta Nafar Estatua Gogoa ekimena egiten lagundu duten norbanako eta eragile guztiak eskertu ditu. «»»

Asteburua iruditzen

Leitza



TXISTULARI ETA AZOKA EGUNA

Leitzaiko Kultur Astearen barruan, Txistulari Eguna ospatu zuten larunbatean. Euskal Herriko hainbat herrietako 80 musikari inguru elkartu ziren. Hala, goizean zehar kalejiran aritu ostean, eguerdian Inguurtoa dantaztu zuten herriarrek txistuaren doinuekin. Bestalde, herenegun XXXIV. Azoka Eguna izan zen Leitza. 65 artisauren lanak izan ziren ikusgai, eta jende ugari gerturatu zen honek ikustera. Kultur Aroak ekimena «an jarraituko du, aurtengo berotasuna den bonoraren pitzearekin. «»»

Asteasu



SENIDETZE EGUNA OSPATU DUTE

IV. Senidetze Eguna ospatu zuten Asteasu larunbatean. Altorondo bialarako Amasa-Villabona, Asteasu-Aduna eta Zuzkil El Salvadorko Segundo Montes komunitatearekin daude anaituta, eta duela 16 urtetik dira martxa bertan elkartasun proiektuak. El Salvadorretik etorritako hiru kide izan ziren ospakizuneari, eta esker hartzak izan zituzten lau udalontziak eta bertako herritarrentzat, «saurea egiten lagundu» ditelako. Giro ederran bazkilduz eman zioten amatera ospakizunari. «»»

Giro aparta, Txaramako eta Izaskungo jaietan

Txaraman bi eguneko festa larunbatean amaitu zen; Izaskunen atzo izan zuten jaietako azken eguna



Higo Terradillos

Eguraldi ederra lagun, jai giroan, asteburu polita igaro dute Txaraman eta Izaskunen. Lehenen bi eguneko festa izan dute, eta bigarrenean, hiru eguneko osaturikoa. Txaraman ostiralean hasi ziren festa, baina egun handia larunbata izan zen. Goizean hainbat lehiaketatan hartu zuten parte auzotarrek, eta arratsaldean gasteoak izan ziren protagonista, dantza saio ederra eskaini zituelarik.



Izaskunen, bestalaxe, atzo amaitu ziren jaiak. Larunbeteke ekitaldi nagusia ikusmin handia piztu zuen zakli lasterketa izan zen. Herenegun, berriolariak eta trikiti saioak nagusitu ziren, eta atzo Albur dantza taldearen saioak gozatzeko aukera izan zen.

Golan, eckerrean, Txaramako dantzarren saioa. Eskuinean, larunbeteke zakli karrera, eta behean, Alur dantza taldearen emanaldia, Izaskunen. «»»



“Bilketa sistema garestiagoa bada ere kudeaketa ziklo osoa kontutan izanik merkeagoa da atez atekoa eta lanpostu gehiago sortzen du.”

Josu Amilibia, Ekonomilaria.



Osasunagatik
Inguurigoak
kezkutzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrozki ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz



“Erraustea planteatu da baina honek baditu ondorioak osasunean eta ingurugiroan”

Alaitz Mujika, Erizaina.



Osasunagatik
Inguurigoak
kezkutzen gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrozki ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz

«Giro ederrean» ospatu dute beren eguna 65 emakume pilotarik

Gipuzkoako Txapelketa Herrikoa Zarauzko bikoteak irabazi du; Tolosako Uzturpe frontoian elkartu dira

E. Maiz Tolosa

Emakumea Pilotari Eguna ospatu zuten larunbatean, Tolosako Uzturpe pilotalekuan. «Giro polita izan zen, eta oso ondo pasagenuen», azaldu du Maider Mendizabal antolatzaileak egunaren balantzea egiterakoan.

Urtean zehar paleta ikastaroan parte hartzen duten emakumeei zuzenduriko festa da, eta bertan, Gipuzkoako Txapelketa Herrikoiko azken fasea jokatu zuten. Aurtengoan, Zarautz eta Hernaniko bikoteak iritsi ziren finalera, eta Zarauzko bikotearentzat izan zen txapela. «Oso partida ona jokatu zuten. Maila oso oneko bikoteak dira, eta pilotakada askoko partida izan zen. Hernanikoek huts batzuk egin zituzten, eta azkenean Zarauzko bikotea nagusi-



Emakumea Pilotari Egunean parte hartu zuten kirolariak. HITZA

tu zen», adierazi du Mendizabalek.

Gipuzkoako bederatzirik hiritako ordezkariak izan zen txapelketa: Azkoitia, Donostia, Hernani, Oiartzun, Tolosa, Usurbil, Villabona, Zarautz eta Zizurkil. Emakumea Pilotari Egunean guztira 65 emakumek hartu zuten parte. Herri horiei Ibarraokoa ere gehitu zitzaion.

Nahiz eta txapelketa herrikoia jokatu, pilota saio jendetsua anto-



Gipuzkoako Txapelketa Herrikoia irabazleak, sariekin. HITZA

latzen dute egun horretarako. Elkartzen diren emakume guztiak jokatzeko paletarekin. Txapelketa, berriz, paleta ikastaroa egiten ari diren herri bakoitzeko bikote txapeldunek jokatzeko dute.

Lagun arteko bazkaria

Antolatzaileek egun ederra izan zela nabarmendu dute. 10:00etarako herri guztiak emakumeak Tolosako pilotalekuan elkartu ziren. Jarraian, txapelketa parte hartu behar zuten bederatzirik pilotari bikoteek beroketak egiten hasteko ordua izan zuten. 10:30ean ekin zieten partidei. 12:00ak bitartean jokatu zituzten lehen kanporaketak. Aurtengoan Emakumezkoen Gipuzkoako V. Txapelketa Herrikoa zen. Bederatzirik bikote aritu ziren nor baino nor, eta kanporaketa guztiak pasa eta gero, 14:00ak aldera jokatu zuten finala.

Behin finala jokatu, sari banaketa egin zuten. Eta ohiturari jarraituz, talde osoaren argazkia ere ateratu zuten. Duxa eder bat hartu ostean, emakume guztiak mahaian bueltan elkartu ziren bazkaltzeko. Giro ezin hobean pasatu zuten eguna, eta bazkal ostean, dantzaldia ere izan zuten bertaratuko guztiak. Egunari amaiera 19:00ak aldera eman zioten pilotariak.

Tolosako igerilariak emaitza bikainak lortu dituzte

X. Roberto Jauregiren omenezko txapelketa jokatu da; Tolosako igerilari guztiak beraien markak hobetu dituzte

E. Maiz Tolosa

Larunbatean, Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan jende asko bildu zen. Roberto Jauregiren omenezko X. Hegats Igeriketa Txapelketa egin zuten. Tolosako igerilariak maila ona erakutsi zuten, infantil eta kadete mailan.

Herrialde Katalanetatik, Aragoitik, Nafarroatik eta Euskal Autonomia Erkidegotik etorrita-

ko bost talde lehiatu ziren. Tolosarrei dagokien, sailkapen orokorrean lehenengo 10 postuetan igerilari hauek geratu ziren: Itxaso Asensio kadeteak 3. postua lortu zuen 100 metro urazalean, eta 9.a 50 metro urazalean; Ane Gorostegik kadete mailan 7. postua eskuratu zuen 400 metro urazalean, eta 8. postua 50 metro urazalean, eta 9. postua 100 metro urazalean; kadete den Izadi Egizabal 5. postuan sailkatu zen 200 metro urazalean, eta 7.a izan zen 100 metro urazalean; Maria Magro 5. postua lortu zuen 25 metro apnean; infantil mailan, Intza Egizabalek 6. postua lortu zuen 25 metro apnean; Leire Amatriain infantilak, berriz, 10. postuan sail-

katu zen 25 metro apnean. Tolosako igerilari guztiak proba guztietan beraien denborak jaitsi zituzten. Hiru asteburu barru, Espainiako txapelketa izango da infantil eta kadeteentzat eta bertan parte hartuko dute. Lan bikaina egingo dutela espero dute Eneko Garcia eta Ion Espina entrenatzaileak, eta «oso harro» daude igerilariak egin duten lanaz.

Infantilak eta kadeteak

X. Hegats Igeriketa Txapelketa infantil nesketan ondoen ibili zirenak Anna Ariño Kataluniako taldekoa, Miriam Marzo Aragoiko taldekoa eta Laura Lazaro Aragoiko taldekoa izan ziren. Infantil mutiletan, berriz, David Bado-



X. Hegats Igeriketa Txapelketa larunbatean jokatu zen, Usabalen. HITZA

rrey eta Victor Martinez Kataluniako taldekoak eta Vadim Coselev Nafarroakoa izan ziren. Kadete nesketan, Meritxell Ansotegi nafarraren atzetik, Laia Dobao eta Saida Dominguez Katalunia-

ko taldekoak izan ziren. Kadete mutiletan, Javier Aguilar Valentzia taldekoa, Carlos Garcia Kataluniako taldekoa eta Daniel Lama Aragoiko taldekoa izan ziren lehen hiru sailkatuak.

Bertako informazioari, bertako produktuak



Egin HITZAren harpidedun
apirilaren 3tik ekainaren 1era,
eta jaso
Ekain sagardoa
6 botilako kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean



Lekitioko **Metrokua** hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako egonaldia
ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Irudia ◯**ERRITMORIK ONENA AZKEN ORDUETAN**

Xabi Fernandez eta Iker Martinezen *Telefónica* ontziak Volvo Ocean Race probako erritmorik onena ezarri du azken egunotan. Helmugara iristeko 1.500 milia falta direla, *Puma Ocean Racing* ontziko amerikarrek 22 milia bakarrik ateratzen

dizkiete, eta *Camper with Emirates Team New Zealand* taldeko zeelandaberritarrek, berriz, 6 milia. *Telefónica* ontziaren helbururik behinena, hala ere, beren aurretik bosgarren postuan den *Frank Cammas* harrapatzea da. HITZA

Otañok eskuratu du Urrezko Aizkorako finalerako txartela

Aitzol Atutxa eta Floren Nazabalekin batera lehiatuko da txapela lortzeko, ekainaren 10eko finalean

Itzea Urkizu Ibarra

Lehen aldiz, Unai Otaño aizkolari ibartarra Urrezko Aizkoraren finalean izango da, herenegungo finalerdian Ugaitz Mugertza mendean hartu eta gero.

Hasteko, 45 ontzako enborra ebaki behar izan zuten, ahalik eta kolpe gutxien emanda; neurri bereko enborra erlojuaren aurka moztea izan zen hurrengo eginbeharra; hirugarren ariketa, berriz, kana-erdikoa zutik jarrita moztea

izan zen; laugarren proba, 60 ontzako azkarrago ebaki zuenak irabazi zuen. Jarraian, 45 ontzako bat zutik, eta bestea etzanda zutela, ahalik eta azkarren moztu behar izan zituzten. Azkenik, bi kana-erdiko enbor eta lau 60 ontzako erdibitu behar izan zituen aizkolari bakoitzak.

Otaño ibartarrak garaipena nahiko erraz lortu zuen; 18:40 minutuko denbora markatu zuen amaieran, eta Ugaitz Mugertzak, aldiz, 20:16 minutu behar izan zituen.

Horrela beraz, ekainaren 10ean Azkoitian izango den Urrezko Aizkorako finalean ariko da Otaño, lehen aldiz. Txapelketan ere, estrainekoz izango dira hiru finalista, eta Floren Nazabal eta Aitzol Atutxa izango ditu aurkari.

Berrobik eta Bidegoianek aurrera egin dute Herriarteko Txapelketan

Berrobik 2-1 irabazi dio Oartzuni, eta Bidegoian, berriz, 0-3 argiarekin gailendu zaio Urretxuri

I. Urkizu

Esku pilotako Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan aurrera egin dute eskualdeko Berrobi eta Bidegoiango taldeek, pasa den asteburuan jokaturako joaneko norgehiagoketan.

Berrobik pasa den asteburuan jokatu zuen oartzuarren aurka, final zortzirenetako saioa. Hiru partidak amaitzean, eta kadeteen eta seniorren garaipenei esker, 2-1

irabaztea lortu zuten. Jubenil mailan, berriz, Oartzungo pilotariak argi gailendu zitzaizkien Berrobikoei. Horrela beraz, Berrobiko taldeak pauso bat eman du final zortzirenetan, final laurdenetara sailkatze aldera.

Bidegoiango taldeak ere, bere aldetik, Urretxuren aurkako lehia irabazi egin zuen igande goizean Urretxuko Ederrena pilotalekuan jokaturako norgehiagokan. Bidania-goiztarren kasuan, garaipena argia izan zen, eta kadete, jubenil eta seniorrek 0-3ko emaitza eskuratu zuten.

Bengoetxea lehiari sartuko da
Pasa den igandean Aimar Olaizolak 22-15 irabazi zion Julen Rete-giri, eta ondorioz, goizuetarra

izango da Oinatz Bengoetxearen finalerdietako aukaria.

Asegarceko bi pelotari nafarren arteko norgehiagoka datorren astebururako aurreikusita zegoen arren, Aimar Olaizolak besoan dituen arazoak direla eta, atzerapena eskatu zuen atzo bertan.

Buruz buruko txapelketa antolatzen duten enpresek onartu egin dute goizuetarraren eskara, eta beraz, datorren ekainaren 10eko asteburuan jokaturako dute partida, Oinatz Bengoetxeak eta Aimar Olaizolak. Azken honek, finalerdietan Bengoetxeak gauzak «zail» jarriko dizkiola azaldu du, leitzarra oso joko onarekin ikusi duela nabarmenduz: «Oso kanporaketa zaila izango da».

Lara Arruabarrenak ezin izan du Roland Garros txapelketan jarraitu

Ana Ivanovic serbiarraren aurka galdu egin du tenis jokalarit tolosarrak, 6-1 eta 6-1eko emaitzarekin

I. Urkizu

Lara Arruabarrena tolosarrak ezin izan du Roland Garros txapelketan aurrera jarraitu, Ana Ivanovic-en aurka galdu ondoren.

Arruabarrena izan da Roland Garrosetako tenislari talde nagusian sartu den tenis jokalarit euskaldun bakarra; gogora ekarri be-

har da, gainera, Grand Slameko lau txapelketetako bat dela Parisen jokatzeko den Roland Garros.

Lur harrotuan jokatzeko den txapelketa garrantzitsuenak da Pariskoa, eta bertan debutatu ahal izateko, hiru norgehiagoka gairatu behar izan zituen hasierako fasean Lara Arruabarrenak; azkena Garbiñe Muguruzaren aurka jokatu zuen.

Horrela beraz, maila honetako txapelketa batean lehen aldian izan zuen tolosarrak. Ana Ivanovic serbiarra munduko tenislari hobereana izandakoa da, eta ordu bete inguruan 6-1 eta 6-1 irabazi zion norgehiagoka tenislari gazteari.

Hilberriak

ARANTXA ERRIONDO ERZIBENGOA
anderea
(Patxi Galdosen alarguna)
Ostiralean hil zen, 87 urte zituela

Seme-alabak: Sebas eta Lourdes Noguera, Arantza eta Imanol Ostolaza; bilobak: Itziar eta Arkaitz, Josu, Jon, eta Aitor; anai-arrebak: Miren (†) eta Jabier Bagües (†), Mikel, koinata: Kontxi Korostola; ilobak, lehenegusua eta gainerako ahaideak.

Hil eta elizkizunak atzo, astelehena, egin ziren, Fatimako Andre Mariaren (Kaputxinoak) parroki elizan. Esker onik beroena bertan izan zirenetan guztiok, eta gure atsekabearekin bat egin duzun guztiok.

Errenteria-Oreoretan, 2012ko maiatzaren 29an

ARANTZA ERRIONDO ERZIBENGOA

Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak Ohorezko Bazkidea

*Amairak badakar hastea
Iragana berriro piztea
Eta zu,
irrifartsu,
gugan,
memorian,
elkarteko amona maitea*

Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak

Errenteria-Oreoretan, 2012ko maiatzaren 29an

JOSU SUSPERREGI CARCEDO

*Zure irrifarra itzali da,
baina zure alaitasuna
beti gurekin egongo da.
Maite zaitugu, Josu.*

Zure lagunak

Lezon, 2012ko maiatzaren 29an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari




'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



MUSIKA, GAZTEAK GERTURATZEKO

Hernialde Katalanetako Mataro hiriko Eskolaploak ikastetxeko 52 ikasle izan ziren, atzo, Topic zentroan, kontzertua eskaintzen. Ikasle hauek

orkestra bat dute eta Hirukide ikastetxeko DBHko 3. mailako 18 ikaslek osatzen duten abesbatza-reakin batera aritu ziren. I. GARCIA LANDA

Agenda

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura, gaur, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Bertan, besteak beste, atez ateko zabor bilketaren sistema martxan jartzeko prozesuaren onarpena izango dute hizketagai, eta baita udaleko euskara erabilera planaren 2012ko kudeaketa plana ere.

■ **Lizartza.** Kultur astearren ba-

rruan, gaur, 17:00etan, ipuin kontalaria izango da 2 eta 4 urte bitarteko haurrentzat, udaletxean; 17:30ean, *Pernando Amezketarraren pasarteak* ipuina izango da 5 urtetik gorako umeentzat; eta 20:00etan, *Zer jan eta zer edan* hitzaldia eta osasunari buruzko galdera orokorren tartea izango da, Julian Bereziartuaren eskutik, kulturegunean.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

SALESIANOS urrieta
SALESIARRAK
**LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL**

Diseño gráfico, Ingeniería, Sergrafía, Maquinaria, Electrotécnica, Electrónica
Diseño Gráfico, Ingeniería, Sergrafía, Electrónica, Electrotécnica

**MATRIKULAZIOA
MATRIKULACION**

Matuzaren 28tik ekainaren 8ra,
Del 28 de Mayo al 8 de Junio.

zatoz ven

www.salesianosurrieta.com



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

**FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA**